

## BERRI OROKORRAK

2023ko abenduaren 1ean 13. zenbakia

### Euskararen eguna

Gaur, euskararen eguna ospatuko dugu ikastolan. LHkoekin goizean ekintza batzuk burutuko ditugu eta 11:50 aldera Mikel Laboa plazan denok elkarrekin abestuko dugu.

Arratsaldean, 16:15ean, HH-ko eta LH1, 2 eta 3ko ikasleekin jolaslekuan eguna kantuz amaituko dugu. Zuek ere gurekin abestera gonbidatuta zaudete!!!

Bestalde, DBH-koek ere beren ekintzak izango dituzte, besteak beste, irratsaio dramatizatua, Euskararen Erronka eta bertso saioa.



### Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2024ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



### Neguko katalogoa

Urtero bezala, aurten ere Ikastolen Elkartek [Neguko katalogoa](#) argitaratu du eskaintza interesgarriekin. Eskaera egin nahi baduzue, [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera idatziz egin dezakezue. Neguko oporrak baino lehen jaso ahal izateko, abenduaren 4a baino lehen eskatu beharko da.



### Kuota osagarria

Azaroaren 16an ospaturiko Batzar Nagusian, 2023/24 ikasturterako familiek ordaintzen duzuen kuota osagarria mantentzea onartu zen. Beraz, kuota osagarria ikastolako etapa guztietarako **38,76** euro izaten jarraituko du.

Goizeko zaintza, garraio eta jantokiko prezioek ere ez dute aldaketarik jasango.



## Eskia denontzat

Aurten ere, neguko giroa aprobetxatuz, LH 5. mailatik gorako ikasleei zuzenduriko eski-aldia antolatu da. Bi irteera eskainiko dira:



- ❖ egun berean joan-etorrikoa, martxoaren 2an, Arette-ra
- ❖ asteburu osokoa, otsailaren 17tik 18ra, Candanchura

Informazio gehiago aurrerago jasoko duzue.

## Eskolaz kanpoko kirolerako dirulaguntza

"Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol-egitasmoak garatzeko dirulaguntza"-ren "4. lerroa, eskolaz kanpoko kirol-jardueretan parte hartzea" eskatzeko epea **GAUR** amaitzen dela jakinarazten dugu.

Hona hemen [Informazio guztia](#).

Eskaerak udaletxeko erregistroan presentzialki edo erregistro elektronikoz bidez aurkez daitezke.

Hauetako diru aurkeztu beharreko eranskinak: [2A eranskina](#), [2F eranskina](#) eta eskola kiroleko koordinatzailearen (edo izena emanda dagoen kirol elkartearen) agiria. Edozein zalantza izanez gero, harremanetan jar zaitezke Libanarekin, Udaleko kirol arduradunarekin, [kirola@usurbil.eus](mailto:kirola@usurbil.eus) helbidean edo 943372498 telefono-zenbakian.



# HAUR HEZKUNTZA

## Zorriak HH4

**HH 4 urteko** ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

**Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

**[NEURRI HORIEK](#) ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU [DENOK](#) ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA**



# LEHEN HEZKUNTZA

## Zorriak LH2

LH 2-ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

**Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

**NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA**



## Mugikorren inguruko galdetegia

Esteka honetan LH5 eta LH6 mailetako gurasoei galdetegi anonimo bat bidaltzen dizuegu mugikorraren erosketa eta erabileraren inguruko informazioa jasotzeko asmoz. Bete dezazuen eskatzen dizuegu, minutu bat da eta denon iritzia izatea oso garrantzitsua da.

Bestalde, urrian zehar LH5-LH6 eta DBH1eko ikasleek mugikorraren inguruko lanketa egin zuten Miren Rosekin eta gurasoek ere aukera izan zenuten gelan egindakoaren informazioa Miren Rosen eskutik zuzenean jasotzeko. Maila horietako gurasoek beraz, gelan jaso eta egindako lanketaren aurkezpena ere jasoko duzue emailaz.



# BIGARREN HEZKUNTZA

## Irteera-kobrantza DBH3

**Datorren ostegunean, abenduaren 7an, DBH 3. mailako ikasleek La Arboledako aterpetxera egingo duten irteeraren 1. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30,00 €** izango da.**



## Mugikorren inguruko lanketa

Urrian zehar LH5-LH6 eta DBH1eko ikasleek mugikorren inguruko lanketa egin zuten Miren Rosekin eta gurasoek ere aukera izan zuten gelan egindakoaren informazioa Miren Rosen eskutik zuzenean jasotzeko. Maila horietako gurasoek beraz, gelan jaso eta egindako lanketaren aurkezpena ere jasoko duzue emailaz.



## DBH 4. mailako ikasleen txertaketa

Osakidetzako txertaketa programaren barruan, DBH 4ko ikasleei **Difteria-Tetanos**aren aurkako txertoa jarriko zaie. Horretarako, [baimen-orri hau](#) **abenduaren 7rako sinatuta** ekarri beharko dute ikastolara eta **tutoreari eman**.

